

BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUAREN GOBERNU BATZORDEARI

AURKEZTUTAKO ZUZENKETEI BURUZKO JUSTIFIKAZIO TXOSTENA

JON LAFUENTE LOPATEGI jauna, Bizkaiko Abokatuen Elkargoko letradua, 1805 elkargokide-zenbakia duena eta helbide profesionala Mazarredo zumarkalea 19, 3. departamentua, 48001 Bilbo, Estatutuen proiektu berriaren inguruan aurkeztutako zuzenketei dagokienez, Batzorde honen aurrean agertzen naiz, eta zuzenbidean bidezkoa den bezala,

DIOT:

2024ko abenduaren 23an jakinarazi zidaten gure Elkargoan eztabaidatu beharreko estatutuen proiektu berriaren inguruan aurkeztutako zuzenketen inguruan justifikazio-memoria labur bat gaineratu behar nuela, indarreko estatutueta 82.2. artikuluari jarraituz. Beraz, legezko moduan eta adierazitako epean, idazki honen bidez, eta honako hau gaineratzen dut:

NERONEK AURKEZTUTAKO ZUZENKETEI BURUZKO JUSTIFIKAZIO TXOSTENA

1. SARRERA

Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Estatutuen Erreformari dagokionez letradu honek aurkeztutako zuzenketen arrazoiak eta helburuak labur-labur azaltzea da justifikazio-memoria honen helburua, **indarrean dauden estatutuen 82.2 artikuluan** ezarritakoaren arabera.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren indarreko estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onartu ziren, eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren funtzionamendurako lege- eta antolaketa-esparru gisa balio izan dute.

Ulegarria da arau-aldaketak eta beharizan berriak direla-eta estatutuak aldatu behar izatea, gure elkargoaren jarduerak behar bezala garatuko direla bermatzeko.

Hala, proposatutako zuzenketa **gure lanbide- eta elkargo-jardueraren kalitatea hobetzera mugatzen dira, lege-aldaketa berri horien esparruan.**

2. ZUZENKETEN HELBURUA

Zuzenketen helburua da, abokatu honen ustez, estatutu-xedapenak eguneratzea honako hauetarako egokitzeko:

- Martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra egokitzea.

- Hizkera inklusiboan aurrera egitea, eta akatsak eta omisioak zuzentzea.

- Ohiko edo ezohiko batzar nagusietara bertaratu eta botoa emateko sistema telematikoa ezartzea.

Nire asmoa da **aurkeztutako proiektua hobetzea** eta gure elkargoaren kasu zehatzera egokitzea, gure elkargoak **Euskal Autonomia Erkidegoan dituen berehalako beharrak** aintzat hartuz. Izan ere, gure elkargoak ahalegin handiagoa egin behar du Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko berezitasunen esparruan, besteak beste, gure hizkuntza, euskara — gaztelaniaz batera— erabilia izan dadin justizia-administrazioaren esparruan, eta, horretarako, euskara ikusgarriago egitea ahalbidetuko duten jarduera-esparruak sortu beharko dira.

3. ARAU TESTUINGURUA

Kontuan hartuta Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartu zuen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretua, eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren estatutuak erreformatzeko proiektua aurkeztu denez —2019ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onartutakoak, testu horretara egokitzeko—, estatutuen eskema berri bat proposatu digute.

Aurkeztutako zuzenketak **indarreko Estatutuen 82.2 artikuluan** jasotako legezko arauen arabera eta indarrean dagoen Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorren arabera egin dira.

3. ZUZENKETEN EDUKIA ETA JUSTIFIKAZIOA

Proposatutako zuzenketek batez ere aurkeztutako estatutu-proiektuaren artikulua hauei eragiten diete:

1) 15. artikulua, 17. orrialdea, 2. paragrafoa.

Zuzenketa egiteko arrazoia da elkargokide diren profesional euskaldun gehiago daudela, baina justizia-administrazioan euskararen erabilerak ez du gora egin.

Beraz, zuzenketen helburua da elkargoak berak bultzatzea eta birbideratzea, justizia-administrazioko arduradunei dagokienez, euskara justiziaren eta herri-administrazioaren eremuan benetan eta eraginkortasunez erabil dadin.

Euskararen normalizazioa eta erabilera lortu nahi dira justizia-administrazioaren eremuan, eta funtsezkoa da Elkargoak protagonismoa hartzea, hizkuntza ofizial horren erabilerari dagokionez, itzulpen eta hurrekotasuneko oztopo historikoak gaindituz. Bilbon izandako esperientziek erakutsi zuten azpiegitura egokirik ez izateak antzeko ekimenen porrota eragin zuela. Epaitegi euskaldunen plan pilotu bat eta aurrerapenen urteko ebaluazio bat ezinbesteko urratsak izango lirateke; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko arduradunekin eta Eusko Jaurlaritzako arduradunekin harremanak sendotu beharko lirateke; Ofizioko Txandako eta Doako Justiziako zerbitzu publikoaren eremuan harremana badago erakunde horiekin.

2) 4. artikulua, 10. orrialdea, g) lerrokada.

Aurkeztutako zuzenketak, gai hori aztertzekeo batzarrak hartutako konpromisoaren arabera, azpimarratzen du Praktika Juridikoaren Eskolaren independentziak eragin positiboa izan lezakeela elkargoaren kontuetan eta lankidetzaren malgutasunean, elkargokideentzako onurak maximizatuz.

Azterketa ekonomikoa funtsezkoa da erabaki informatua eta orekatua hartzeko.

3) 57. artikulua, 49. orrialdea, 5. paragrafoa.

Bozketa telematikoaren modalitate hori hartzeak elkargoaren barne-demokrazia indartuko du, elkargokideen parte-hartzea sustatuz eta haien prozesuak modernizatuz. Premiazko eta ezinbesteko neurri bat da, 2023ko uztailaren 17ko ezohiko batzar orokorrean erabaki zena, aurkeztutako zuzenketaren justifikazioan adierazitakoaren arabera.

Era berean, estatutu-proiektuaren justifikazio-memoriaren barruan, erreformaren irismenari buruzko atalean, 51. artikulua gaia aipatzen du; hala ere, 57. artikuluan, "en su caso" esaldia agertzen da, eta beraz, ez dirudi berehalakoa denik, eta horixe zen erabakitakoa, duela urtebete baino gehiago ezohiko batzar nagusi horretan, eta, beraz, batzordeak lehenbailehen aplikatu behar ditu boto telematikoa ezartzeko behar diren bitartekoak.

4. ONDORIOAK

Proposatutako zuzenketen helburua Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Estatutuen proiektua hobetzea da, elkargokideen egungo eskaeretara egokituz eta funtzionamendu inklusiboagoa, efizienteagoa eta parte-hartzaileagoa sustatuz.

Beraz, zuzenketa horiek dagokion eztabaidan aintzat hartzea eta aztertzea eskatzen dut, onar ditzaten.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ESKATZEN DIOT BATZORDEARI, idazki hau eta bere kopiak aurkeztutzat hartuta, onar dezala, eta, azaldutakoaren arabera, batzorde horrek egindako errekerimendua bideratutzat eman dezala eta aurkeztutako zuzenketak justifikatzen dituen memoria laburra aurkeztutzat eman dezala. Zuzenketa horiek onartuz gero, batzar nagusian eztabaidatuko dira, onartze aldera, betiere zuzenbidearen arabera.

Bilbon, 2024ko abenduaren 27an.

Sin.: Jon Lafuente Lopategi jn.